

OSASUN PUBLIKOA INDARTZEKO NEURRIEI BURUZKO MOZIOA

AZPEITIKO Udalak, bere eskumenen esparruan eta, bereziki, osasun publikoa sustatu, kudeatu, defendatu eta babesteari dagokionez, Osasun Sailarekin lankidetzan jarraitzeko konpromisoa adierazten du. Osasun Saila eta Osakidetza, COVID-19aren hedapenaren eta horrek gure bizitzako esparru guztietan dituen ondorioen aurkako borrokan.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen zaio:

1. Lehen mailako arreta indartzen jarraitzea, herritarrengandik hurbilen dagoen asistentzia-maila gisa, irisgarritasun handiagoa bermatuz eta ekitate ezak saihestuz.
2. COVID-19aren aurkako borrokaren eskura jartzen jarraitzea, kaltetutako pertsonak zaintzeko eta beste patologia batzuk dituzten gainerako pertsonak artatzeko, eskura dauden baliabide pertsonal eta material guztiak.
3. Fakultatiboen eta erizainen plaza hutsak betetzeko eskaintzari eustea eta zabaltzea, administrazio-arloak ere indartuz eta profil funtzional berrien alde eginez, bai eta horien prestakuntzaren alde ere.
4. Langileak berritzeko, gehitzeko eta finkatzeko prozesua amaitzea, dagoeneko onartuta eta deituta dauden lan-eskaintza publikoen bidez.
5. Gaur egun arte bezala, lehen mailako arretako zentroyen berrantolaketa dinamikoa sustatzea, une bakoitzean. COVID-19aren pandemiaren intzidentzia-mailaren arabera gertatzen diren egoeretara egokitu ahal izateko, eta pandemiak gure osasun-sisteman egiten duen presioak behera egiten duen heinean, arreta presentziala berreskuratzea bultzatzea, profesionalen eta pazienteen segurtasuna bermatuz.
6. Pandemiak eragindako osasun arreta jasotzeko itxaron-zerrendak eta berandutze-denborak murriztea bultzatzea, testuinguru-pandemikoak ahalbidetzen duen moduan, arreta berezia jarri patología larriak eta kronikoak dituzten pazienteei.